

# Internet home: etorkizuneko etxeak gaur

Josu Waliño  
Informatikan lizentziatua

Sukaldean bazkaria prestatzen ari garen bitartean beste gela batean lo dagoen haurra zaintzen egotea, edo lanetik irtetera goazenean etxea bero izan dezagun berogailua piztea eta antzeko ideiak jada ez dira etorkizuneko ametsak. Cisco konpainiak Internet Home delakoa aurkeztu berri du European, aukera horiek eta gehiagorekin.



GAUR EGUN DAGOEN TEKNOLOGIA ERABILIZ, etorkizunekoak diruditen etxeak eraiki daitezke. Hori esatera etorri da Cisco konpainia eta horretarako Londres-en garatu du prototipo gisako proiektu bat. Kon-

painia horrek Londres-eko kanpoaldean itxura arrunteko dozena bat etxebizitza eraiki ditu, guztiak router baten bidez Internet-era konektatuta eta Windows NT duen zerbitzari batez kontrolatua. Siste-

ma horren bidez, etxeko hainbat sistema (alarma, kamerak, berogailuak, etab.) kanpotik kontrolatu ditzakegu nabigatzaile arrunt baten bidez. Etxe kanpotik ez ezik etxe barrutik ere kontrola ditzakegu noski eta, horretarako, etxeko gela bakoitzean ordenagailu bat kokatu dute.

Etxearen kontrola egiteko software berezia garatu dute. Horren bitartez, energia-aren erabilera hobeto kontrola daiteke. Eta gela guztien temperatura, argiztapenaren maila, alarma, etxean zehar kokatutako kamerak eta lorategiko ureztatzea ere kontrola dezakegu. Software hori, gainera, itxuraz alda daiteke, nahi den etxeko gelarekin lan egin dezan.

*“gaur egun dagoen teknologia erabiliz, etorkizunekoak diruditen etxeak eraiki daitezke”.*



Etxearen kontrola egiteko software itxura desberdinak izan ditzake.



Londres-en egin dituzten etxetxo horiek 125 milioi pta.tan saltzeko asmoa dute. Dena dela, inork bere etxea horrela kontrolatu nahi badu, hona prezioak: etxea egiten ari diren bitartean kableak jartzea 1.250.000 pta. inguru kosta daiteke, eta sarean jartzen diren ekipoak 5.000.000 pta. inguru. □

INFORMAZIO GEHIAGO: [WWW.CISCO.COM](http://WWW.CISCO.COM)

# 50 urte dituen ordenagailua




Jurij Semkiw CSIRACen agente-gunean.


**Duela gutxi aurkitu dute, biltegi batean ahaztuta, Australian garatutako lehen ordenagailua. CSIRAC izeneko 2.000 kiloko munstroa, ordenagailuen dinosaurutzat har daiteke.**

ZORTZI URTE BAINO GEHIAGO eman zituzten CSIRAC ordenagailua garatzen; munduko zortzigarren ordenagailu elektronikoa izan zen. Garai hartatik geratzen den ordenagailu bakarra da, bere belaunaldiko guztiak aspaldi desegin baitzituzten.

CSIRAC ordenagailua 1947an diseinatu zuen Trevor Pearcey injineruak. 2.000 kiloko pisua du, 40 metro karratuko tokia har-




Paper Zulatuaren irakurgailua.



Ron Bowles, Erloju Nagusiaren frekuentzia doitzen.

tzen du eta dial, palanka eta adierazlez betetako zuloz josita dago. Funtzionatzen zuen garaian 30 kW-eko potentzia eta 1 kb-eko memoria zuen. Kalkuluak egiteko erabili zen batez ere: datuak pertsona batek kalkulagailu batekin egingo zuena baino 1.000 aldiz azkarrago prozesatzen zituen.

Gaur egun bi injineru ari dira ordenagailua berriz martxan jarri nahian, datorren urtean Melbournen zabalduko den museo batean erakusgai ipini nahi baitute. 

## 2.000 milioi efektua

2000 efektua deitu duten hori 2.000 milioien efektua ere deitzea bazuten, hura saihesteak ekarri duen kostua ikusita. Esate baterako, auto konpainien kasuan: General Motors konpainiari 150.000 milioi pezeta kostatu zaio 2000 urterako prest egotea. Ford-i 700.000 milioi, Volkswagen-i 30.000 milioi inguru, Renault konpainiari 5.000 milioi eta Fiat-i 15.000 milioi. Beraz, ezin da esan 2000 efektua guztien kalterako denik, norbait negozio bikaina ari baita egiten.

## AM irratiek ADSL a moteltzen dute

Ahoz aho dabilen ADSL Internet-era konektatzeko sistema berriak ere baditu akatsak. Duela gutxi jakin izan denez, AM irratiek interferentziak egiten dituzte ADSL lineetan eta datuak ordenagailura kargatzean abiadura % 40raino moteldu daiteke. Arazo hori nonbait ez da gertatzen datuak igotzeko orduan, eta ezta ADSL linea guztietan, gutxi gorabehera probatutako %15etan bakarrik.